



Brasilera goaz!

Iritsi dira inauteriak. Aurten, Kultur eta Turismo Ekintzetxeak Rio de Janeiro bihurtu nahi izan du Donostia, Brasil baita aurtengo inauterietako gaia. Caipirinha dastaketa, sanba, eta nola ez bada, konpartsen ohiko desfilea dira egunotako osagarrietako batzuk.

Borja Ruiz

Inauteriena ohitura zaharra da gurean: 1814koak dira Donostiako inauteriei buruzko lehen aipamenak. Hasieran, ikaste eta lagun koadrilek ospatutako festa ziren. Etxegarai eta Sarriegiren doinuak ditugu XIX. mendeko inauterien lekuko. Antolaketa eskaseko konpartsa jendetsuak ziren protagonista garai hartan, Lorezainena edo Turkiako Kaldereroena, kasu.

Orduz geroztik, gauzak asko aldatu dira. Gaur egun, konpartsen desfileak inau-

Aurten, 1.800 lagunek parte hartuko dute konpartsetan

terietako hitzordu nagusia izaten jarraitzen du, baina ez dago inondik inora agerraldia bat-batean egiterik. Hau da, kalea atera baino lehen, konpartsetako kideek gogotik lan egin behar izaten dute hila-bete luzez.

Inauteriak amaitu baino lehen, konpartsek hurrengo urteko gaiari heltzen diote eta abuzturako, mozorroen diseinuak prest izan ohi dituzte. Hurrengo pausoa koreografia prestatzea da, iraila aldera entseiuak egiten hasi ahal izateko. Azken hilabetean, berriz, erlojuaren kontra borrokan, karroza egitea izaten da eginkizun nagusia.

Aurten 24 taldek parte hartuko dute desfilean: 1.805 dantzarik, guztira. Kon-



Kale kantoitik

Hiriko giltzak Luis Albainarentzat

Aurtengo Momo Jainkoa 58 urteko Luis Albaina da. Jaiotzez, tolosarra da Luis, baina gaur egun, Egian bizi da. 18 urte luzez Altzako Gurea konpartsan ibili da lanean, jo eta su. Zամundako printze, Brasilgo sanbeiro... hamaika morrozo ezberdinekin ikusi dugu Luis inauterietan. Eskarmentua, beraz, badu, baina Momo Jainkoa izatea ez da nolana hiko erronka. Izan

ere, inauteriek irauten duten bitartean, hiriko giltzak izango ditu Albainak: "Konpartsan aritzen ohituta nago, baina egunotako zirrara berezia da". Gainera, Momo Jainkoaren eginkizunez gain, badu beste asmó "ezkutu" bat Luisek egunotarako: "Bost egunez hiriko giltzen jabe naiz; ea hori ordaintzeke dudan isuna baliogabetzeko nahikoa den...".



partsa gehienak Donostiakoak dira, baina badira Errenteriatik, Hernanitik, Leiztatik eta Pasaiatik etorritakoak ere. Parte hartzaile kopuruari dagokionez, Kultur eta Turismo Ekintzetxearen datuen arabera, gorabeherak izan dira azken urteotan. 1999an eta 2000n, esaterako, 2.000tik gora lagunek parte hartu zuten, 2.078k eta 2.109k hurrenez hurren.

2001ean, aldiz, kopuruak pixka bat behera egin zuen (1.929) eta 2002an beherakada nabarmenagoa izan zen (1.666). Aurten, berriz, larunbateko eta igandeko ekitaldian 1.805 lagun ariko dira; parte hartzaile kopurua ez da 2.000ra iritsiko, baina, behintzat, iaz baino 150 lagun gehiago izango dira Donostiako kaleetan.

Kresala eta Thamessis

90eko hamarkadako inauterietan, konpartsa lehiaketan, Kresalak jaso zuen sari gehien; Parte Zaharreko elkarteak bost urtez jarraian eskuratu zuen sari nagusia. Kresalak, hala ere, ez du azken urteotako desfileetan parte hartu, inork ez duelako hainbat urtez antolatzaile lanetan aritutakoen lekukoa hartu nahi izan. Kresalan ibilitako lñakik azaldu digunez, "zaila izaten zen aurrekontu izugarriak zituzten taldeekin lehiatzea, baina guk lortu egin genuen, irudimenari egundoko etekina ateratzen genion eta. Dena dela, antolaketan lanetan ibiltzea lan nekeza zen eta utzitakoan, lasaitu ederra hartu nuen".

lazko konpartsa desfilearen irabazlea Bidebietako Thamessis taldea izan zen. Hauek ere gogor aritzen dira lanean. Thamessiseko kide Ivanek dioenez, "urriko lehen ostiraletik aurrera entseietan aritu gara, astean hiru aldiz. Larunbatetan ere entseiuak egin ditugu, astean zehar etortzerik izan ez dutenentzat". Ivanen ustez, ikusleei gustatu egingo zaie Thamessis-en aurtengo konpartsa, "baina txaloak jaso ala ez, gure eguneroko lanak berdin jarraituko dio", dio Ivanek.

Astelehenean jakingo dugu zein konpartsa sarituko duten. Zorte on guztiei eta ondo pasa!

Kale kantoitik

Egitaraua

Ostirala 28

19.31 Harrera Alexis Valdes pregoilariari, Maria Cristina hoteleko sarreran

19.46 Inauteriak hasteko desfilea

20.16 Pregoa eta Momo Jainkoaren aurkezpena, Bulebarreko kioskoan

20.31 Batukada handia, Bulebarreko kioskoan

21.46 Zuhaitz konpartsa Loiolako kaleetan ibiliko da

22.01 Thamessis konpartsa emanaldia, Bidebietako areto-futbol zelaietan

23.01 Sanba eta Brasilgo musika, Errege Katolikoen kalean

Larunbata 1

11.01 Goiz eresiak, Zuloaga plazatik Londres hotelera

11.31 Goiz eresiak Momo Jainkoari, Londres hotelen

12.31 Alkateak hiriko giltzak emango dizkio Momo Jainkoari

13.01 Tangoak Bulebarreko kioskoan

17.01 Inauterietako kabalgata: konpartsa eta karroza lehiaketa

19.01 Donostiako inauteriak: Eskola taldeak "Lorezainen konpartsa" kaleratuko du

20.01 Mozorro lehiaketa eta helduentzako parodia, Bulebarrean. "Rio Samba Show" Brasilgo kalejira, Errege Katolikoen kalean

21.01 Afari brasildarra Errege Katolikoen kalean

23.01 Egunsentira arte dantzan. Inauteri jai

handia Belodromoan. Joseina Etxeberriarekin, El Pulporekin eta Cyborg taldearekin.

23.31 Gau Erdi eta Kantauri fanfareak Parte Zaharreko kaleetan

Igandea 2

11.31 Jai brasildarra Alderdi Ederren: futbol partida, sanba eskola eta Brasilgo caipirinha edaria egiteko tailerra. Donostiako Inauteria: Eskola dantza taldeak "Lorezainen konpartsa" kaleratuko du

12.01 Gatzaga eta Fama konpartsak Bulebarreko abiatuko dira. Aitor Ikastola eta Denok Taldea Egian ibiliko dira; Alegria de Aitza, Santa Barbara, Gurea eta Trumoi konpartsa, Aitzan; eta Gaztetxo eta Lagun Arte, azkenik, Grosen

12.31 Donostiako batukada handia Alderdi Ederren. Zuhaitz konpartsa berriro aterako da Loiolan.

13.01 Caipirinha dastaketa Alderdi Ederren. Eskola taldearen "Lorezainen konpartsa"

17.01 Inauterietako kabalgata. Konpartsa eta karroza lehiaketa

18.01 Zaharrentzako dantzaldia Ahots&Company taldearekin, Errege Katolikoen kalean

20.01 Sanbodromoa Bulebarrean

Astelehena 3

17.01 Haur kabalgata

19.01 Haurrentzako jaialdi handia Bulebarreko kioskoan

Asteartea 4

19.16 Sardinen ehorzketa

20.31 Sardina jatea Bulebarrean

